

Autoen I. Slalom jendetsua

Azkarrena
Iban Iglesias
izan
zen ▶ 4



ESKUALDEKO EGUNKARIA ▶ Asteartea ▶ 2007-09-04 ▶ V. urtea ▶ 1.226. zenbakia ▶ www.tolosaldeko-hitza.info

ANTONIO ALUSTIZA ▶ ARTZAINA

«Txakurrak nik esaten diodana egitea egunoroko lana da»

ARESO ▶ Nafarroako Ardi Txakur Lehiaketan bere 8. txapela eskuratu du Txiki txakurrarekin

LANBIDEA ▶ «Artzainen ogibidea amaitzen ari da eta ardi txakur lehiaketak ere desagertuko dira» ▶ 7



Antonio Alustiza bere zortzigarren txapelarekin, Txiki txakurra alboan duela. N. GARZIA

J. ZABALZA



Casino Kursaal Saria Patxi Zeberioentzat

ELDUAIN ▶ Koteto Ezkurraren aurka gailendu zen erremontista (35-17) iragan larunbatean, bere bigarren txapela lortuz ▶ 2-3

TOLOSALDEA-LEITZALDEA ▶

VI. HITZA Argazki Lehiaketa abian da sari ugarirekin

Udako oporraldiko argazki ederrenak aukeratu dituzte irakurleek ▶ 6

hitza
argazki
lehiaketa

opor hauetan atera argazkiak

ARGAZKIAK NORA BIDALI

- ▶ P. elektronikoa: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info
- ▶ Postaz: Argazki lehiaketa. Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza. Araba etorb 5, atzea • 20400 TOLOSA

Nahi baduzu, argazkiak Tolosako edo Leitzako HITZAren egoitzetara ekarri

OINARRIAK: www.tolosaldeko-hitza.info

Sari nagusia

Mendexa-Lekeitiko **VILLA ITSASO** hotelean **bi pertsonentzako** asteburua.

2. saria

Talasoterapia **Zelai** Zumaiako **TALASOZELAI** tarasoterapia zentroan **bi pertsonentzako** zirkuitua.

3. saria

Tolosako **DENAK** tabernan **lau pertsonentzako** afaria.

ZOKRETA APARTAK

PARTE-HARTZAILE ETA BOTOEMAILE guztien artean HITZAren motxila eta mendiko gerriko poltsa zozkatuko dira

ABUZTUKO KRONIKA ▶

Abuztu gazi-goza

Bi ezbehar larrik belztu dute udako hilabetea, eta txanponaren beste alde kirola eta kultura izan dira, berri onak eskainiz; mugak hautsi ditu kasu askotan, bertakoa kanpoan zabalduz



Carlos Peñak pakearen alde bost egun igaro zituen uretan igeri. HITZA



Euskal Herriko selekzioa Austriako Europako Txapelketan aritu zen. IBON AZPILIKUETA

A. IMAZ - N. URBIZU

Abuztuan zehar hainbat albiste, bai on, eta bai txar gertatu dira Tolosaldean eta Leitzaldean. HITZA egunkaria argitaratu ez den hilabete honetako berri nagusiak biltzen dira ondorengo lerroetan. Kirola, beste behin, izan da albiste onenak emateko gaia.

UZTAILAK 30

Ezbeharrak. Tolosako Ramon Arbillaga, Asuncion klinikako kudeatzailea Espainiako Pirinotan, Panticosa inguruan eskalada egiten ari zen bitartean jausi egin zen. Zehazki, Palas mendian gertatu zen ezbeharrak. Guardia Zibilak erreskaltatu zuen tolosarraren gorpua.

iragarki laburrak ▶

SALGAI

Egurra. Sutarako pago egur lehorra salgai. Etxera entregatzen da. 615 755 762.

GALDUTAKOAK

Txakurra. Espaner Breton arrazako txakur txuri-marroia topatu dute Gaztelun. 1-3 urte bitartekoa. Txiparik gabe. 665 712 188.

ABUZTUAK 3

Musika. Gaugiroko egitarauaren baitan Garikoitz Mendizabal eta Aitor Furundarenaren emanaldia bertan behera gertatu zen, istripu bat izan zutela medio.

ABUZTUAK 5

Igeriketa. Carlos Peñak bost egun zehar igeri egin zuen, «Euskadiko bakearen alde». Hondarribiatik abiatu zen eta 150 kilometro egin zituen, Getxora iritsi zen arte. Egunak ez ziren oso aproposak izan igeri egiteko eguraldiarengatik, baina, hala ere, «egoera onean» bukatu zuen igerialdi gogorra.

ABUZTUAK 9

Musika. Hodeiertz abesbatzak

TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Iruditan. Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAko VI. Argazki Lehiaketako argazkiak ari dira ailegatzten. Dagoeneko webgunean ikusgai izango dituzu. Eskualdeko udan bisitatutako irudiak dira. Animatu eta zuk zerorrek ere bidali!

Donostiako hamabostaldian eskaini zuen saioa. Enrike Azurza izan zen orduan zuzendaria. Hauekin batera Tirri-Tarra ere izan zen.

Dantza. Oinkari Dantza Taldea Danimarkan ibili zen emanaldiak eskaintzen, guztira 10 dantza saio inguru eginez. Bertan, eurekin batera beste hamabi talde ere ibili ziren.

Arrauna. 13 egunetan zehar Kantauri itsasoa zeharkatu zuten traineran 20 bat lagunek. Tartean Ekain Yarza billabonatakk hartu zuen parte. Oriotik abiatu ziren uztailaren 28an eta abuztuaren 9an Santiagora iritsi ziren.

ABUZTUAK 10

Ezbeharrak. Zizurkilen kamioi

batek 11 urteko haur bat harrapatu zuen eta zaurien ondorioz hil egin zen. Umea bizikletan zebilen. Zizurkildik Andoingo errepedean.

Dantza. Udaberri dantza taldekoak Gualbara (Girona, Herrialde Katalanak) joan ziren. Bertan, Euskal Herriko dantzen emanaldia eskaini zuten.



Pico Palas mendian jausi zen Ramon Arbillaga Mujika tolosarra. HITZA



Manifestazioa burutu zen Tolosako kaleetan zehar Iruretagoiena *Suniren* atxiloketa salatzeko. ASIER IMAZ



Zeberio II.ak Ezkurra garaitu zuen buruz-buruko Casino Kursaal Txapelketan, bigarren urtez jarraian txapela lortuaz. JOSEBA ZABALZA



Oinkari dantza taldeak Danimarkan Euskal Herriko dantzak erakutsi zituen abuztuan egindako irteeran. KARLIS

ABUZTUAK 12

Txirrindularitza. Zizurkilen neska txirrindularien herriko III. Sari Nagusia eta Euskadiko Txapelketa jokatu ziren, kade-te, junior eta eliteen mailan. Belca taldeko Irene San Sebastian tolosarra juniorretan bigarren geratu zen, irabazlearen-gandik 11 segundotara. Dina Mendikute hernaldearrak berri- z, Euskadiko Txapelketan txapelundorde geratu zen.

ABUZTUAK 14

Pilota. Mikel Olazabal areso- rrak Leitzako pilotalekuan de- butatu zuen profesional mail- an. Itxura ona emateaz gain garaipena lortu zuen. Apezet- xea-Galarza VI eta Olazabal- Apeztegia izan ziren jokatz- en eta 14-22 izan zen emaitza. An- tza, 600 pilotazale elkartu ziren Amazabal frontoian Aresoko gaztearen debuta ikusteko as- moarekin. Aspeko jokalaria be-

rriak «joko ona» erakutsi zuen eta «gustura» agertu zen.

ABUZTUAK 18

Eskubaloia. Portland San An- tonio talde iruindarrak Eibarko Arrate taldearen aurka lagun- arteko partida jokatu zuten Tolosako Usabal kiroldegian.

ABUZTUAK 25

Sega. Austrian, nazioarteko eran jokatutako Europako Txap- elketan, Euskal Herriko selek- zioko 15 segalariek ez zituzten nahi bezain emaitza onak lortu, ez baitziren sailkatu lehenengo 10 postuen artean. Emakumez- koetan lehen euskalduna, Ma- rialuixa Gabirondo gazteluarra izan zen 12. bukatu zuelarik. Gizonezkoetan lehen euskal- duna Jexux Mari Goenaga izan zen, 16. eginez.

ABUZTUAK 26

Artzain Eguna. Nafarroako

Txapela berriz ere Antonio Alustiza aresoarrak irabazi zuen Uhartte-Arakilen Ardi Txakur Lehiaketan, Txiki txak- rurrekin. Dagoeneko 8 txap- el eskuratu ditu. Hilaren 16an Euskal Herrikoan ariko da.

Futbola. Iñigo Sarasola billa- bonatarrak Realarekin jokatu zuen Anoetan, Castellonen aurka. Bigarren mailako lehen partida izan zen talde txuri-ur- dinarentzat.

IRAILAK 1

Aizkora. Unai Otaño Ibarrako aizkolari gazteak Gipuzkoako Txapelketa irabazi zuen Do- nostiako Trinitate plazan, ezus- tekoa handia emanez. Ibartar- ra lehen aldiz lehiatu zen Le- hen Mailako final batean eta 10 aldiz txapelundorde izan den Joxe Mari Olasagasti igeldoarra fa- voritoari gailendu zitzaion, au- rreikuspen guztiak hautsiz.

Politika. Luis Iruretagoiena *Suni* tolosarra, atxilotu zuten Cahors-en (Frantzia), etakide izatea leporatuz. Beste hiru euskaldun ere etxe berean atxilotu zituzten. Atxiloketa sa- latzeko Tolosan manifestazioa burutu zuten. Deialdirako kar- telak jartzan ari zirela, Ertzain- tzak eskualdeko bi lagun komi- saldegira eraman zituzten, ondoren, aske utzi zituztela- rik.

IRAILAK 2

Erremontea. Zeberio II.ak bu- ruz buruko Casino Kursaal Txapelketa irabazi zuen bere ohiko maila erakutsi ez zuen Ezkurraren aurka. 35-17 izan zen emaitza; sakez Patxi Zebe- rio elduaindarrak 11 tanto egin zituen. Honen ondorioz, Ezku- rrak ezin izan zuen bere har- margarren txapela lortu. Txap- el hau bigarrena da elduain- darrarentzat.

SASKIBALOIA ▶

Saskibaloian hasteko izen-ematea bihar

Biharko deialdia luzatzen zaie aurki hasiko den denbo- raldian saskibaloian jolastu nahi duten Tolosaldeko nes- ka-mutilei. Deialdia, 92, 93, 94 eta 95 urteetan jaiotako gazteentzat da, datorren denboraldian infantil eta ka- dete mailetan ariko direnente- zat. Beraz, kirol honetan jo- katu nahi duena Usabal ki- roldegira ager daiteke bihar 17:00etan.

TOLOSA ▶

Musika eskolako ikasleen emanaldia

Hilaren 16an 19:30ean Musi- ka eskolako aretoan Udal Musika eskolako ikasleen kontzertua izango da, eta me- tal eta egur taldeen musika entzun ahal izango da. Bes- talde, plaza librean gelditzen dira matrikula egiteko.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112))

Osasuna.

- ▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
- ▶ **Anoeta-Alkiza-Hernalde.** Medikua: 65 23 39
- ▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
- ▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003
- ▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361
- ▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
- ▶ **Ibarralde.** Osasun etxea: 672411

- ▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329
- ▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720
- ▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800
- ▶ **Orendain.** Medikua: 655595
- ▶ **Orexa.** Medikua: 682228

- ▶ **Tolosa.**
 - ▶ Anbulatorioa, larrialdia:461111
 - ▶ San Esteban: 006800
 - ▶ Gernikako arbola: 006900
 - ▶ Amaroako dispen.: 672637
 - ▶ Asunzion Klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)

- ▶ **DYA:** 672536
- ▶ **Gurutze Gorria:** 674888
- ▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970
- ▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb: 693930

Garraioak.

- ▶ Renfe: 902 24 02 02
 - ▶ Donostiako autobusa: 361740
 - ▶ Tolosaldea bus: 650621
 - ▶ Leitzaran autob.: 948 221015
 - ▶ Taxia: 670420
 - ▶ Taxia (Leitza): 608 873016
- Besterik.**
- ▶ Ertzaintza: 538820
 - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
 - ▶ Tolargi: 650016
 - ▶ Iurramendi egoitza: 670325
 - ▶ Tolosa gasa: 675320

ZIZURKIL ▶ KIROLA

Ibai Iglesias izan da azkarrena

Espero baino ikusle gehiagok jarraitu zuten Autoen Zizurkilgo I. Slaloma

IMANOL GARCIA

Jende ugari bildu zen igandean Autoen Zizurkilgo I. Slaloma ikusteko. Urbasa taldeko Ibai Iglesias izan zen irabazlea Oriapaper-fabrikaren ondoko aparkalekuan jokaturako proban. Antolatzaile lanetan aritu den Saul Robles zizurkildarrak azaldu duenez, «espero baino jende gehiago etorri zen. Dirudenez jakinmina sortu zuen eta gustura gaude proba nola atera den ikusita. Datorren urtean ere ziurrenik antolatuko dugu».

Ibai Iglesiasek Kart-Cross Nitokar Evo II autoarekin irabazi zuen, 54,96 segundoko denborarekin. Bigarren Ion Maritxalar ibartarra izan zen Nitokar autoarekin, 56,39 segundorekin. Hirugarren Iñigo Olabegogeoaskoetxea izan zen, Peugeot 309 GTI autoarekin eta 59,64 segundo eginez. Mikel Erauskin alegiarra bosgarren sailkatu zen eta Aaron Robles zizurkildarra 13. postuan.

Gutzira 25 gidarik hartu zuten parte proban, Euskal Txapelketarentzako baliagarria izan den bosgarrena. Lau mailatan banatu zen proba. 1.600 zentimetro kubiko arteko autoetan Iker Balart izan zen irabazlea, Iker Nograroni ia bi segundoko aldea eta Ametz Mendizabali lau segundoko aldea atera ondoren. 1.600 zentimetro kubikotik gorako autoetan Iñigo Olabegogeoaskoetxea izan zen aurrena. Hamar segundo baino gehiagoko aldea atera zion Iñigo Artetxeri eta ia hamabi segundotara Antonio Riojari. Atzeko gurpiletan trakzioa dutenen artean Fernando Flaño izan zen azkarrena. Aaron Robles eta Javier Martinez bigarren eta hirugarren izan ziren, hurrenez hurren, zortzi eta hamabi segundotara. Azkenik, Kart-Cross mailan Ibai Iglesiasekin eta Ion Maritxalarrekin batera podioan Imanol Lacar izan zen.

Bestalde, junior mailakoetan (1989 urtetik aurrera jaiotako-



Slalomean parte hartu zuten autoak ikusteko aukera ere izan zuten probaren joan ziren ikusleek. A. LARREA



Ibai Iglesias irabazlea, probaren une batean. HITZA

ak) Imanol Lacar izan zen garailea, sailkapen orokorrean laugarren postua eskuratuz. Lacar doa aurrena Junior Txapelketan. Bere atzetik doaz Ametz Mendizabal eta Aaron Robles. Zizurkilen ere sailkapen hori lortu zuten.

pelketan. Bere atzetik doaz Ametz Mendizabal eta Aaron Robles. Zizurkilen ere sailkapen hori lortu zuten.

Saul Robles antolatzaileak azaldu duenez, «proba hauek ikusgarriak dira. Rallytan tarte txiki bat bakarrik ikusten duzu eta slalometan aukera duzu zirkuu guztia ikusteko. Horrek ematen dio erakargarritasuna horrelako probei». Diseinutako ibilbidean gidariek beren abilezia erakutsi behar izan zuten lau gurpilen gainean. Bi aldiz egin behar izan zuten ibilbidea eta denbora onena bakarrik kontuan hartzen zen sailkapena zehazteko. «Gidariak esan dutenez oso gustura aritu dira Zizurkilen egindako proban», zehaztu du Robles antolatzaileak.

Euskal Herriko

onddoen gida liburua


Aranzadi Zientzia Elkartearen esker, Euskal Herriko 110 perretxiko ezagunen zerrenda ekarri dugu liburua honetara. Perretxikozaleentzat gida ezin hobea: perretxiko bakoitzaren ezaugarriak, nola bildu, gordetzeko teknikak, intoxikazio arriskuak...

Euskal Herri osoko
110 perretxiko
ezagunenak

- 🍄 110 perretxikoak banan-banan: ezaugarriak, habitata eta jangarritasun maila
- 🍄 Perretxikoen mundura bidaiatu
- 🍄 Perretxikoak egoki biltzeko azalpenak
- 🍄 Intoxikazioen aurrean zer egin
- 🍄 Perretxikoak kontserbatzeko metodoak



Irailak 8, larunbata
kartilla + 1. kupoia berriarekin



ALKIZA ▶ GIZARTEA

'Oilategitik' herriko aldizkariaren 2007ko alea kaleratu dute


ERREDAKZIOA

Oilategitik Alkizako herri aldizkariaren 2007ko alearen aurkezpena egin berri dute herrian, urtero bezala, herriko festen aurretik. Aldizkariaren egileak gustura agertu dira, ale «dotorea, atsegina, inoiz baino errazago tajutu eta idazle gazte berriak herrian agertu direlako».

Aurtengo urtekaria zaspigarrena da. Herriko erakunde nagusiek parte hartu dute: Udalak, eskolak, parrokiak, pilota elkarteak, Alkizako webguneak eta kanta-taldeak, besteak beste. Gai oso ezberdinak aur-

ki daitezke: atzo-atzoko Alkizako argazkiak, bertako sei base-rriren xehetasun historikoak, aurtengo jaien egitaraua, Peruko Pedro Manueli aldizkariak eskainitako hil osteko omenaldia, Joan Irazusta alkizarra euskal idazle klasikoaren bizitza eta obra, Azaldegia eta Sakamidra toponimia, XIX. mendean karlistak eta liberalak Alkizan, herriko frontoia eta azkonarrari eta suge korbata-dunari buruzko testuak.

Elkarrizketatu dituzte alkatea eta zinegotziak banan-banan, aurtengo jaien bi antolotzaile, Villabonan bizi den Arpideko Felix Otaegi ileapantzaiz-



Aldizkariaren azala. HITZA

lea, Arantzabene eta Aretako Juanito eta Inazio Mujika bi anaia errezildarrak eta aeromodelismoaren zaletua den Aitzol Sorarrain alkizarra, baita bere lagun bat ere.

Oilategitik herrian dohain banatuko dute eta Gipuzkoako udal liburutegietara ere zabaltzen du Udalak.

KULTURA ▶

Ikasturte berriari gogotsu

Atsedendaldien ostean, era guztietako ekitaldiz beterik dator iraila: zinema, musika, antzerkia, jaiak, hitzaldiak...

INIGO TERRADILLOS

Atsedenerako egunak izan dituzte askok abuztuan, eta hori asko nabaritu da Tolosako kaleetan, gehienek herritik kanpo igaro baitituzte oporretako egunak. Eta irailean jendea ohiko jardueretara itzuli den bezala, berdin egingo dute kultur ekitaldiek, hilabete honetan izango baita zinemaz, antzerkiak eta musikaz, besteak beste, gozatzeko aukera.

ARANBURU JAUREGIA

Gotzon Etxeberria eta Josep M. Codina. Pintura eta eskultura erakusketa. Ostiralean, hilaren 7an izango da inaugurazioa, 19:30ean eta urriaren 6ra arte izango da ikusteko aukera. **Jesus Elozegi 1907-1979.** Argazki erakusketa hilaren 8tik urriaren 6ra arte izango da ikusgai.

KULTUR ETXEA

Odol ateratzea. Odol Emaileen hileroako odol ateratzea izango da hilaren 17an, 18:00etan. **Aitzol Udal Euskaltegiaren XXV. urteurrena.** Hilaren 18an, urteurrena dela eta, film proiektzioa izango da 19:00etan. **Fibromialgia eta neke kronikoari buruz hitzaldia.** Bizi Bide, Gipuzkoako Fibromialgia eta Neke Kronikoaren elkarteak antolatutako hitzaldia izango da hilaren 20an 17:30ean, gaixotasun hau azaltzeko. **Gorren familiaren inguruan hitzaldia.** Gaintitzen elkarteak antolatutako hitzaldia izango da hilaren 28an, 19:00etan.

LEIDOR ARETOA

Zinema. *Next* (hilaren 14tik 17ra), *Ocean's Thirteen* (hilaren 22tik 24ra) eta *La jungla 4.0* (hilaren 29tik urriaren 1era) filmak izango dira ikusgai. **Haurrentzako zinema.** *Harry Potter* (hilaren 15ean eta 16ean, 17:00etan), *Los Simpson* (hilaren 23an, 17:00etan) eta *Ratatouille* (hilaren 29an eta 30ean) filmak eskainiko dituzte. **Zine Foruma.** *En el hoyo* (hilaren 20an 19:15ean eta 21:45ean, Mugikortasun Astearen egitarauaren baitan) eta *Un americano en Paris* (hilaren 27an, 19:15ean eta 21:45ean) filmak izango dira ikusgai. **Donostiako Zinemaldia.** Film

proiektzioa ikasleentzat euskaraz, 10:00etan, hilaren 21ean. **Antzerkia.** *Lapur zuloa* antzezlana izango da hilaren 21ean. **Haurrentzako antzerkia.** *Txanogorritxo* antzezlana gozatzeko aukera izango dute etxeko txikiek, hilaren 22an, 17:00etan.

BESTERIK

Jesus Elozegi 1907-1979. Liburuaren aurkezpena, udal txean, hilaren 8an 12:30ean, Aranzadi Zientzia Elkarteak eta Udalak antolatuta.

Izaskun auzoko festak. Hilaren 8an eta 9an, egitarau oparoa izango da.

Gazte Topagunea. Hilaren 8tik aurrera Topagunea Kultur Etxeko 1. solairuan izango da larunbatero eta igandero, arratsaldeetan.

Reincidentes. Bonberenean, hilaren 9an izango da kontzertua, 20:00etan.

Tolosaldea Garatzen-MCC enpresa ekimen berritzaileak sortzeko lehiaketa. Hilaren 12an sari banaketa ekitaldia izango da, 18:30ean Aranburu jauregian.

Garagardo Festa. Hilaren 13tik 16ra izango da bederatzigarren edizioa, kirol taldeek eta Udalak antolatuta. Dastaketa eta kultur ekitaldiak izango dira Zerkausan.

Diskofesta. Hilaren 15ean izango da Beotibar pilotalekuan, 10:30etik 05:00etara.

Euskara ikastaroak etorkinentzat. Hilaren 15etik aurrera hasiko dira etorkinentzako euskara ikastaroekin, Ereite elkarteak antolatuta. Kultur Etxean izango dira larunbatero, 10:00etan.

Kultur tailerrak. Hilaren 17tik 28ra izango da matrikulazio epea. 17tik 21era iazko ikasleek izango dute izena emateko aukera, eta 24tik 28ra ikasle berriek.

Aitzol Euskaltegiaren XXV. urteurrena. Hilaren 17tik 23ra izango dira urteurreneko ekitaldiak.

Mugikortasunaren Astea. Udal Ingurugiro Departamentuak antolatuta.

Vikingo MD. Hilaren 21ean eskainiko dute kontzertua Bonberenean, 22:30ean.

Alde Zaharreko festa. Alde Zaharra Dendak elkarteak antolatuta, hilaren 22an izango da Alde Zaharreko festa.



X. Garagardo Festa hilaren 13tik 16ra izango da Zerkausan. Irudian, pasa den urteko une bat. NEREA URBIZU

HITZA ARGAZKI LEHIAKETA ▶

ERREDAKZIOA

Egin duen eguraldia kontuan hartuta, askok eta askok hasi ez denaren sententzia izango dute oraindik. Baina ziurrenik, beste batzuek honi jaramonik egin ez eta oporraldia aprobetxatzen jakin izan dute. Dena den, gehientzat, lanera itzultzeko garaia iritsi da.

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK, udaren zapore gozoa gogorarazten duten argazki horiek aprobetxatzeko aukera ematen du. Izan ere, dagoeneko abian da VI. HITZA Argazki Lehiaketa. Euskal Herrian, atzerrian, mendian, kostaldean... ateratako argazkiak aurkez daitezke lehiaketan. Norberaren esku dago gaia, bakoitzarentzako esanguratsu, ikusgarri edo berezia den txokoa, unea edo irudia izan daiteke txapelketako irabazle. Argazkiek bete behar duten baldintza bakarra, uda honetan ateratakoak izatea da. Bestalde lehiakide bakoitzak argazki bakarra aurkeztu ahal izango du.

Argazkiak bidaltzeko posta elektronikoz (tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info), posta arrunta erabiliz (Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa, 20.400 helbidea bidali eta zehaztu Argazki Lehiaketarako dela) edota HITZAREN egoitzetara (lehen aipatutakoa edo Leitzakoa) ekarriz egin ahal duzue. Jasotako argazkiak egunkarian argitaratuz joango dira datozten egunetan. Hauetatik batzuk publikatzeko denborarik ez baluke emango ere, horrek ez du esan nahi lehiaketan sartzen ez direnik —interneten izango dira guztiak ikusgai—. Jasotako guztiak izango baitute irabazteko aukera.

Oraingoan ere, sari bikainak izango dira irabazleentzat.

Udako une eta irudi esanguratsuena paperean islatuta

Dagoeneko martxan da VI. HITZA Argazki Lehiaketa; hemen ere sari potoloak banatuko dira irabazleen artean



Kantabriako Isla herriko hondartza erretratatu zuen Moira Zeberio, V. HITZA Argazki Lehiaketarako. m. z.

VI. HITZA ARGAZKI LEHIAKETA ▶ OINARRIAK

EPEAK

- ▶ Argazkiak bidaltzen hasi zaitezke dagoeneko; hilaren 20ra bitarte hartuko ditugu erredakzioan.
- ▶ Irailaren 24ean aukeratutako zortzi argazki finalistak argitaratuko dira.
- ▶ Hilaren 30ean irakurleek aukeratutako argazki irabazlea argitaratuko da. Bozkatzeko epea hil honen 28an amaituko da.

BALDINTZAK

- ▶ Aurkeztutako argazkiak

udako oporraldikoak behar dute izan.

- ▶ Argazkiak paperean, diapositiban eta formatu digitalean onartzen ditugu.
- ▶ Argazki digitalek, gutxienez, ezaugarri hauek izan behar dituzte: 20 zentimetroko zabalera eta 300eko bereizmena.
- ▶ Jari behar diren datuak: egilearen izen-abizenak, helbidea eta telefonoa. Horrez gain, argazkia non eta noiz egin den, eta zer ikusten den labor adierazi beharko da.

- ▶ Jasotako argazkiak artiboan gordeko ditugu, eta HITZAK behar dituen argitaratu ahal izango ditu.

- ▶ Jasotzen diren argazki guztiak sartuko dira lehiaketan, baina HITZAK jasotako lehen 50 argazkiak argitaratuko ditu.
- ▶ Argazki guztiak webgunean izango dituzte ikusgai.
- ▶ Parte-hartzaile bakoitzak argazki bakarra bidali ahal izango da.

SARIAK

- ▶ Irabazleak Mendexa-Lekeitioko Villa Itsaso hotelean bi pertsonentzako asteburua lortuko du.
- ▶ Bigarren saridunak Zumaiako Talasozelai talasoterapia zentroan bi pertsonentzako zirkuitua irabaziko du.
- ▶ Hirugarrenak, Tolosako Denak tabernan lau lagunentzako afaria irabaziko du.
- ▶ Argazki Lehiaketan parte hartzen duten guztien artean HITZAKO produktuak zozketatuko ditugu. Baita botoa ematen dutenen artean ere.

TOLOSA ▶

Tolosa CF nesken taldeak atezaina behar du

Tolosa CF nesken taldeak denboraldi berria hasi du. Hauek 3. mailan jokatzeko dute. Duela bi aste hasi ziren entrenatzen baina oraindik atezain bila dabilta. Horregatik deialdia luzatzen diete futbola gustuko duten neskei. Interesatuak 628 792285 zenbakira dei dezakete.

TOLOSA ▶

Arantzazura txangoa antolatu du Harizpek

Harizpe jubilatua eta pentsiodunen elkarteak txangoa antolatu du Arantzazura. Hilaren 9an, 08:30ean abiatuko dira Tolosatik; lehendabizi Arantzazura joango dira, ondoren, Itziarrera, eta azkenik Zarautza. Elkartean eman daiteke izena.

TOLOSA ▶

Aparteko osoko bilkura egingo du gaur Udalak

Udalak aparteko osoko bilkura egingo du gaur. Batzarrak 19:30ean izango da, eta ondoko gaia jorratuko da: Europako gutuna emakumeek eta gizonek tokian tokiko bizimoduan izan behar duten berdintasunerako.

TOLOSA ▶


Abian dira udaberriren dantza ikastaroak

Udaberri dantza taldeak eskaintzen dituen dantza ikastaroak hilaren 14 eta 15ean hasiko dira. Honen inguruko zalantzak argitzeko, ostiralean, 18:00etatik 20:00etara Udaberriren egoitzan egongo dira taldekideak.

IBARRA ▶

Udalgintza izango dute hizpide etzi, Subegin

Ibarrako EAE-ANVK etzi batzarrera deitu du. Hau Subegin izango da, 19:30ean. Aztertuko den gaia udalgintza izango da.



Tolosako Udala

IRAGARKIA

Alkatetza honek, Abuztuaren 21eko 1481/2007 Dekretuaren bitartez, honako proiektu hau hasiera batez onestea erabaki du:

E.45 "Igarondo" eremuko Xehetasun Azterlana. Ekainaren 30eko 2/2006 Legeak, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoak, 98. artikuluan xedatutakoaren arabera, espediente HOGEI EGUNez jendaurrean jarrita egongo da.

Espediente jendaurrean jartzeko arrazoia hau da: nahi duen dokumentua aztertu eta alegazioak egiteko aukera ematea.

Iragarri hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Diario Vasco, Tolosaldeko Hitza eta Berria argitaratuko da. Aurrean aipatu den epea argitalpen horietako azken iragarpena kaleratu eta biharamunetik hasiko da kontatzen.

Epe horrek dirauen artean, ikusi eta aztertu nahi duenaren esku egongo da espediente Tolosako Udaltaldeko Hirigintzako Bulegoan, Plaza Zaharra, 6-B eraikinean. Alegazio edo erreklamazioak eraikin horretan bertan dagoen Sarrera Erregistro Orokorrean aurkeztuko dira alkatere-lehendakari zuzenduta.

Tolosan, 2007ko abuztuaren 21ean.
ALKATEA.



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

ANTONIO ALUSTIZA ▶ ARTZAINA

«Nire helburua txakurrak nik esaten dudana egitea da»

Antonio Alustizak beste behin Nafarroako Ardi Txakur Txapelketa irabazi du Txiki txakurrarekin

NAIARA GARZIA

Antonio Alustizak (Areso, 1954) bere txakur Txikirekin zortzigarren txapela eskuratu zuen abuztuaren 26an Uharteko Arakilen ospatutako Nafarroako Ardi Txakurren Txapelketan.

Txapelketetan epaileek zer baloratzen dute?

Obedientzia, gehienbat horri erreparatu diote. Gero txakurrak lana ere egin behar du, baina txakurra nola dabilen, nire aginduetara dabilen edo lanean bere gisa dabilen, hori dezente baloratzen dute.

Hori lortzeko zuk txakurrekin lan handia egin behar izaten duzu?

Eguneroko lana da, txakurra nire esanak betetzera bideratzen dut. Nire helburua txakurrak nik esaten dudana egitea da, ahal den heinean.

Zure etxean ikasi al duzu edo zure kasa?

Nire etxean ni naiz aurrena hasitakoa eta azkena ere bai, neronek bakarrik jarraitzen dut eta. Ni txapelketetan parte hartzea Leitzakoekin animatu nintzen. Mayetakoak ziren aurrena hasitakoak eta haiekin animatu nintzen. Handik hasitako kontua da dena. Honetat gain, txakurra beti izan dut etxean ardi lanak egiteko, baina txapelketetan horrela hasi nintzen.

Txikik eguneroko lanean asko laguntzen dizu?

Bai, gure etxean beti izan dira ardiak, horrexegatik lehenik oraingo txakurra ere etxeko lanak egiteko dut. Txikik pertsona batek lagunduko lidakeena baino gehiago laguntzen dit. Gauza asko egiten ditu; nik txakurra bidaliko dut ardiak ikusten ez ditudan leku batetara eta ekarri egiten dizkit, morroi bat balitz bezala. Eguneroko lanerako behar dut eta asko laguntzen dit. Horretaz gain, lehiaketetara ere eramaten dut.

Txapelketan txakurrek zer egin behar izaten dute?

Aurrena izkin batetan banderilla jartzen dituzte eta banderren artean pasa behar izaten da txakurra, txistua jota bi aldirik geldiarazten dute eta ardiak sarrera egin eta ardiak mugitu egin behar izaten ditu. Hau lehenengo zatia da. Gero ardiak jartzen dituzten tokitik nire ondora ekarri, bertan gelditu arazi eta gero hesi bat zeharkatu behar izaten du. Azkenik, borobilean sartu eta atera behar izaten du, ahal bada, noski, hori baita egin beharreko lana.

Aurtengo txapelketan 9 aurkeztu zarete. Alde handia nabaritu al duzu txakur batetik bestera?

Bai. Artzain bakoitzak lan egiteko modu ezberdina dauka, eta txakurrak ere zerikusit-



N. GARZIA

rik izaten du. Niri gustatzen zait parte hartu eta ahal baldin bada zer edo zer egitea. Urte hauetan nahiko ongi nabil eta ea jarraitzeko modua izaten dudana.

Dagoeneko 8 txapela lortu dituzu, marka ederra da.

Bai. Bazen, ordea, 15 txapela lortu zituen bat, Patxi Etxeberria izenekoa. Hurrena behar bada ni izango naiz, baina hura nire aldean... Halere oraindik uzterik ez dut pentsatu.

Ardi txakurrak orokorrean nolakoak dira?

Izan ditudanak gehienak langileak eta obedienteak izan dira. Halere, ikusten dudana da lehiaketetara eramaten ditudanean oso urduri jartzen direla, hori garbi daukat. Uste izaten nuen aurrenekoa zela horrela, edo bigarrena, baina laugarre-

nak ere berdin berdin jartzen du. Beste bat izaten badut kanpora eramaten dudanean ere urduri jarriko da. Hori ezin dut ekidin. Nik ez dakit behintzat nola lasaitu. Txapelketetan txakurrak lasaitzen jakin nahiko nuke, baina ez dakit.

Hilaren 16an Euskal Herriko Txapelketan parte hartuko duzu, eta gero, nazioartekoan. Noizbait hauetan txapelik irabazi al duzu?

8 aldiriz izandua naiz eta ez dut inoiz txapelik eraman. Zer bide eraman behar dudana badakit, baina han maila altuagoa da. Euskal Herrikoan bigarren atera naiz bi aldiriz, eta nazioartekoan behin atera nintzen bigarren, beste behin hirugarren, baita laugarren ere, baina Nafarroako txapelez gain, ez dut besterik lortu.

Gaur egungo gizartearen artzaintzat lekurik ba al dago?

Artzainen ogibidea amaitzen ari da eta ardi txakurren lehiaketak ere pixkanaka bukatzen ari dira. Artzain gutxi gelditzen dira garai batean bezala erabatean artzain dagoena. Gehienak ni bezala ibiltzen dira, lantokian eta gero ardiatzen. Hori ere txakurren eta artzainaren arteko harremanean nabarrituko da, egun guztian berarekin egon edo gu bezala, presaka... Egunduz dagoen hark txakurrarekin beste harreman bat izaten du.

Ardi txakurrak noiz erretiratzeko dira?

10 urterekin gelditu zitzaidan izan dudana hoberena. Jai, modeldu egin zen. Gainera adin horretan gortu egiten dira.

hilberria ▶

Iñaki Urzelai Aramendi jauna

2007ko irailaren 2an hil zen, 89 urte zituela
-Golan bego-



Emazteak, seme-alabek, bilobek eta gainerako senideek gure eskerrik beroenak eman nahi dizkizuegu, une latz honetan harekiko maistasuna erakutsi duzuen guztioi.

DONOSTIAN, 2007ko irailaren 4ean


hilberria ▶

Iñaki Urzelai Aramendi jauna

2007ko irailaren 2an hil zen, 89 urte zituela
-Golan bego-



BAGERAK, GAZTEZULOK ETA IRUTXULOKO HITZAK
bat egiten dute familaren saminarekin eta bereziki Josebarekin



DONOSTIAN, 2007ko irailaren 4ean

ESKUALDEKO EGUNKARIA ▶ 2007ko irailaren 4a, asteartea ▶ V. urtea

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Berastegi. Gaztainondo jubilatuen elkarteak Laguardiara irteera antolatuta du hilaren 12rako. 08:30ean abiatu, Santa Maria eliza eta beste hainbat txoko bisitatu, ardo dastaketa El Fabulista bodegan, bazkaria Marisa jatekean eta arratsaldea Logroñon. Izen-ematea, elkartearen bertan.

Tolosa. Harizpe jubilatu elkarteak Arantzazura irteera antolatuta du irailaren 9rako, bertako Ama Birjinaren eguna. Itziarke eliza bisitatu eta Hostal Itziarren bazkaria izango da. Prezioa: 27 euro (ez bazkideek 30 euro). Izen-ematea, elkartearen bulego orduetan.

Villabona. Pirinioetara irteera antolatuta du Aizkardi mendi elkarteak hilaren 15 eta 16rako, Monte Perdido (3.355 m) igoz eta Goriz aterpean lo eginez. 60 euro. Izen-ematea, 649-717182 telefononon 20:00etatik 22:00etara.

ERAKUSKETA

Tolosa. Iñaki Linazasororen argazkiak ikus daitezke Aranburu Jauregian. Zuri-beltzez dira eta Tolosa eta Euskal Herria dira gai nagusiak. Asteartetik larunbatera 09:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 19:00etara eta igandeetan 10:00etatik 13:00etara bitarte.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Tolosa. Santamaria, I. Nafarroa etorbidea, 2. 943 654610.
Leitza. Larraia, M.I. Elbarren, 95. 112.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
 Haimar (Lizartza).

Banatu gaituzte baina elkarrekin jarraitzen dugu borrokan. Tiochfaidh àr là. Gari eta Nagore.



URTE ASKOAN
 Haimar.

Muxu goxo ta potoloak ebekoan partetik!



URTE ASKOAN
 Haimar (Lizartza).

Eutsi goiari, garaipena gurea duk. Aurrera bolie.



URTE ASKOAN
 Haimar (Lizartza).

Aitabo, animo ta eutsi goiari!



URTE ASKOAN

Txindiki azpiko haize bolada honekin besarkada, jo ta ke, ta irrintziarekin urte askoan guapo!



URTE ASKOAN

Gaur aitoren urtebetetzea, bihar lkerrena eta hilaren 11n Unaena. Zorionak eta muxu handi bana ebekoan partetik.



URTE ASKOAN

Narrea Mendez (Anoeta).

Irailaren 1eko partez ebeko printzesari.